

euskararen berripapera 2009



Euskara eta euskalkultura lau haizetara zabaldu



Etxepare Euskal Institutuaren Patronatua.

Bernart Etxeparek, euskaraz argitaratu zen bere lehen liburu hartan, "Heuscara/lalgui adi mundura" idatzi zuen, eta bost mende beranduago, Etxepare Euskal Institutuak lelo hura aldarrikatzen du. Bost mende pasatu eta gero, euskarak, bizirik irauteaz gain, gure gizartean ospea eta presentzia lortu du, hizkuntza moderno bilakatu da. Koldo Mitxelena euskalari handiak esan zenez, euskararen misteriorik handiena ez da haren jatorriarena, haren iraupenarena baizik. Euskarak XXI. mendera arte irauteko gaitasuna frogatu du, eta euskaldunek errealitate aldakorretara egokitzen jakin dutelako gertatu da hori.

Gutxi gorabehera 700.000 euskal hiztun bagara ere, gure hizkuntzak eta gure kulturak mundura zabaldu behar du. Leioha ireki behar diogu gure eremutik kanpo sortzen den kulturari, baina, aldi berean, atea zabaldu behar ditugu, euskara eta euskal kultura kanpora ateratzeko eta ezagutzera emateko. Zorionez, gure hizkuntzak jakin-min handia sortzen du gure mugetatik haraindi. Gaur egun, esate baterako, euskara irakasten eta gure kultura zabaltzen ari diren euskal irakurleak daude 24 unibertsitateetan, eta kopuru hori gehitu egin nahi dugu. Era berean, irakurleentzat programa bateratu bat sortu nahi dugu, horren jarraipen zuzena egin eta bertan ari diren ikasleentzat azterketak antolatu, titulazio bateratu bat sortuz. Gainera, Estatu Batuetako eta Frantziako ospe handiko unibertsitateetan, harremanetan hasiak gara hiru katedra martxan jartzeko, idazle, artista eta unibertsitateko irakasleen aldi baterako egonaldia bideratzeko.

Bestalde, munduan barrena euskara bizirik mantentzeko ahalegina egiten duten euskal komunitate ugari daude, euskal kulturaz gozatzeko prest daudenak. Etxepare Euskal Institutuaren asmoa interes horri erantzutea da, haien beharrak kontuan hartuz eta haiekiko harreman estua mantenduz.

Gainera, hemengo erakundeekin eta gurearen pareko diren Espainiako nahiz Europako beste institutu batzuekin harremanetan gaude jadanik.

Aurki jarriko dugu martxan gure web orria. Izan ere, teknologia berrien bitartez, euskara eta euskal kulturaren mugak hautsi nahi ditugu, guretik mundu zabalera sare sendo bat hedatuz, erakargarria eta oso erabilgarria izango den sarea.

Indar berria eman nahi diogu hizkuntza azoketan izango dugun presentziari. Euskara sustatzea dute helburu, eta horretan ahalegin berezia egingo dugu. Aldi berean, guretzat interesgarrienak diren liburu azoketan ere egongo gara, gure editore eta idazleei babesa emanez.

Euskararen eta euskal kulturaren bidez emango dugu ezagutzera gure herria. Zinearen kasuan, adibidez, Niniak eta Kimuak programen eskutik ibiliko gara zinemaldiz zinemaldi, baina bide berriak ere jorratu behar ditugu. Arte Eszenikoen presentzia indartzea ezinbestekoa da, eta, Arte Ederretan, "Gure Artea" programa indarberrituko dugu. Gainera, gure herriko musika modu eraginkorrean eman behar dugu ezagutzera, bai eta bertsolaritza bezalako fenomeno indarberritua ere. Eta gure ondarea, arkitektura, diseinua eta abar bultzatu behar ditugu.

Martxan daude proiektu zehatzak, baina datozen urteetarako ditugun helburuen ildo berriak marrazteko Plan Estrategiko ireki, aberats eta dinamikoa diseinatu behar dugu, gure egitasmoak ezagutzera emateko. Hori izango da gure ibilbidea, gure asmoa eta gure zeregina, gurea bezalako hizkuntza eta kultura lau haizetara zabaltzeko ●

Euskararen erabilera sendotzeko diru-laguntzak

2010eko diru-laguntza deialdi orokorraren bidez 12.690.000 euro banatuko dira bost laguntza-lerrotan: **Euskalgintza, Hedabideak, IKT, EBPN eta LanHitz.**



Diru-laguntzen deialdiaren aurkezpen-ekitaldia.

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) euskararen erabilera sustatzeko aurtengo diru-laguntzen deialdia emateko modua arautzen duen agindua argitaratu du (ekainaren 4ko EHAA, 105/2010 zenb.).

HPSk, guztira, 2010. urterako, 12.690.000 euro bideratuko ditu euskararen sustapenerako eta zabalkunderako ekintzabideak laguntzeko, alegia %3,13ko jaitsiera joan den urtearekin alderatuz gero (13.100.000 euro). Egungo koiuntura kontuan hartuta, hala ere, oso zenbaki baikorrak dira HPSko sailburuordearen esanetan: «Sekulako ahalegina egin dugu euskararen sustapenera bideratutako diru-laguntzei eusteko, eta, neurri batean, lortu dugula esan daiteke. Oso zenbaki baikorrak dira eta orain gure egitekoa da kopuru horiek ahalik eta hobekien kudeatzea».

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak zenbait berrikuntza sartu ditu diru-laguntza deialdietan. *Euskalgintza* deialdian, esaterako, talde-lanari garrantzi berezia ematea izan da aldaketarik nabarmenena. Aldaketa horren arabera, 100etik 10 puntu emango zaio proiektuari: «Elkarlana bultzatzera bideratuta baitago, eta alde guztiak norabide berean lanean aritzera, indarrak alferrik xahutu gabe», azaldu du sailburuordeak. Aipatutako diru-laguntza hauen barruan, bestetik, tramitazioa erraztu egingo da justifikazio-kontu erraztuaren (60.000 eurotik behera) alde eginez.

Beste alde batetik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza konbentziturik dago behar-beharrezkoa dela laguntza-lerro guztietan ebaluazioa egitea. Horrexegatik, onuradunek egitasmoa burutu ostean, gauzatutako jardunari eta lortutako emaitzei buruzko txostena aurkeztu beharko dute. Horrez gain, ordaintzeko modua ere aldatu egin da. Jasotako diru-laguntzaren zenbatekoak 12.000 euro gainditzen ez duenean, diru-laguntza bere osotasunean ordainduko da, ordainketa bakar baten bidez. Jasotako diru-laguntzaren zenbatekoak 12.000 euro gainditzen duenean, berriz, ordainketa bi zatitan egingo da. Lehenengo ordainketan diru-laguntza osoaren %80 ordainduko da, eta bigarren ordainketan gainontzeko %20a.

Bost laguntza-lerroak

Laguntza horien bidez, honako helburu hauek lortu nahi ditu HPSk. Batetik, eguneroko bizitzan eta jardun-

ean euskararen erabilera bultzatzea, sendotzea eta areagotzea. Bestetik, euskararen normalizazioan ekimen sozialaren jardura bultzatzea (elkarteak, enpresak...) eta herri-erakunde eta gizarte eragileen arteko lankidetzaren sendotzea.

Laguntza-lerroak ondokoak dira:

- **Euskalgintza.** Euskararen erabilera gizartean oro har (aisialdian, kiroltan, kultur jardueretan, e.a.) sustatzeko egitasmoak bultzatzen dituzten erakunde pribatuak dira laguntzen jasotzaileak. Lerro honen helburua euskararen erabilera sustatzeko ekimenak diruz laguntzea da. 2009an 211 egitasmok eta 103 erakundek jaso zituzten diru-laguntzak.
- **Hedabideak.** Hedabideen jabe diren erakunde pribatuak dira jasotzaileak. Helburua euskarazko hedabideak sendotzea da, eta, oro har, euskararen presentzia indartzea hedabideetan. 2009an 68 erakunde onuradunen 122 proiektu lagundu ziren diruz.
- **IKT.** Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan euskarazko baliabideak eta aplikazioak garatu eta euskararen presentzia Interneten indartzen duten erakunde pribatuak dira jasotzaileak. 2009ko diru-laguntzen bidez 155 proiektu eta 112 erakunde izan ziren onuradun.
- **EBPN.** Jasotzaileak EAEko udalak eta udal erakundeak dira. EBPN abian jarri eta urteko kudeaketa-plana gauzatzea du xede. Iaz 128 toki-entitatek jaso zuten diru-laguntza.
- **LanHitz.** Jasotzaileak EAEko enpresa pribatuak eta zuzenbide publikoko erakundeak dira. Euskararen erabilera plana lehenengo aldiz egitea eta 2010eko kudeaketa plana egitea izango dira helburuak. *Bikain*-Euskara Kalitate Ziurtagiria eskuratu eta diru-laguntzen deialdien baldintzak betetzen dituzten entitateentzat diru-kopuru gehigarri bat aurreikusi da. Iaz 175 enpresa eta 46.684 langile izan ziren onuradun.

Eskabideak 2010eko ekainaren 5etik uztailaren 5era aurkeztu ahal izango dira ●

Euskararen erabilera bultzatzeko 2010eko diru-laguntzak	
<i>Hedabideak</i>	5.725.000 euro
<i>Lanhitza</i>	2.200.000 euro
<i>EBPN</i>	1.800.000 euro
<i>IKT</i>	1.626.000 euro
<i>Euskalgintza</i>	1.339.000 euro
GUZTIRA	12.690.000 euro

HPSren diru-laguntzen **onuradunak hizketan**

Enpresa, erakunde eta elkarteek iturri batetik baino gehiagotatik jasotzen dute euskararen erabilera sustatzeko laguntza. Iturri horietako bat Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza da. Bost onuradunek beraien esperientzia kontatu digute.

Arlan enpresa (eraikuntza, industria eta ekitaldietarako hornikuntzak).



«1992. urtearen hasieran, enpresan zegoen euskaldun kopurua eta zuzendaritzak euskaraz funtzionatzeko zuen gogoia ikusirik, Arlaneko zuzendariak, Artez Euskara Zerbitzua-ren laguntzarekin, euskararen normalkuntzarako prozesua abiatu zuen, lan munduan Bizkaiko lehenengo euskara plana martxan jarri.

18 urte pasa dira eta ibilbide luzea egin arren, oraindik beste horrenbeste falta zaigu euskararen normalizazioa lortzeko. Gaur egungo lan munduan eta honek dituen ezaugarrien aurrean (lehiakortasuna, globalizazioa, krisialdiak...), ia ezinezkoa litzateke ganorazko euskara plan batek dituen gastuei aurre egitea kanpoko laguntzarik eduki ezean. Gure eskarmentuak diosku bereziki instituzioetatik datozen laguntzak eta langileok gogotsu egiten ditugun esfortzuak euskara biziberritzeko zutaberi garrantzitsuenetakoak direla.

Gauzak horrela, prozesu honetan parte hartzen duten guztiei gure babesa eman nahi diegu orain arte egindako lanaren ildoak sendo jarraitzeko».

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarte



«Euskarazko hedabideen egoera merkatuen legeen argitan aztertu nahi duenak jai dauka. Gurean eskaria hain da oraindik ahula, eta, okerrago dena, hainbeste produktu eskaintzen zaizkigu guztiok ondo ulertzen ditugun beste hizkuntza batzuetan, non ez den beharrezkoa euskarazko hedabideen kontsumoa.

Guztiona denaren oinarri sendotik abiatuta, guztion eskubide eta ondare bihurtu nahi izan dugu euskara, eta horretan ari gara herritar xumeak, enpresa editorialak eta administrazioa. Eginkizun honetan beharrezkoa da hedabide eskaintza zabal bat edukitzea, baina ezinezkoa merkatuaren legeen ikuspegitik.

Ezinbestekoa da, beraz, Administrazioaren laguntza ekonomikoa eragileek egindako lanak uzta oparoa eman dezan. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren diru-laguntza barik ezinezkoa litzateke Goienak ekoizten duen hedabide multzoarekin aurrera egitea».

Topagunea, Euskara Elkarten Federazioa



«Euskara elkarteek sarrera aurrekontuaren %40 erakunde publikoen diru-laguntza bidez estaltzen dute. Gainontzeko %60a euskara elkarteek beraien antolatutako jardueretatik, eskaintako zerbitzuetatik edo bazkideen kuotetatik lortzen dute. Euskara elkarten eta Federazioaren finan-

tzazioan zutabe garrantzitsuetako bat da diru-laguntzena. EAEn udalek, foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak hartzen dute parte finantzazioan.

Euskara elkarteena euskal gizartearen garapenerako eskaintza da, euskaldunok osatutako elkarteek gizarte osoari luzatutakoa: herri informazioa euskaraz sortuz, euskal kultur gileen lana zabalduz, haur eta gazteentzako aisialdi eskaintza eginez eta euskara erabiltzeko guneak antolatuz, besteak beste. Euskal erakundearen finantzazioa garrantzitsua izan da, eta etorkizunean ere horrela izango den itxaropena dugu, krisialdiak krisialdi, gizarte mugimenduen lana behar-beharrezkoa baita euskaldun moduan biziko garen gizarte antolatzeke. Finantzazio publikoa gizarteari bueltatzeko konpromisoa du gizarte mugimendu honek. Administrazioetik jasotzen ditugun 40 eurotik 100 bueltatzen baitzikio guztiari».

Elkargi E.G.E. (enpresa txiki eta ertainek sortutako finantza erakunde).



«Elkargi Elkarrekiko Garantia Elkarteak, 2003. urtean euskara-plana abian jarri zuenetik, barne- zein kanpo-komunikazioetan euskararen presentzia eta erabilera nabarmen handitu ditu: langileen arteko komunikazioak, bezeroekiko harrerak, kanpora egindako komunikazio nahiz idatziak, agerraldi publikoak, ekitaldiak, webgunea... Horiek guztiak euskaraz bertan dituzte.

Hau guztia garatu ahal izateko, aholkularitza eta Elkargiko langileen borondate eta lanarekin batera, administrazioetik bultzatutako sustapen eta laguntzak oso baliagarriak gertatu zaizkio, bere esparru naturala den alor ekonomiko-finantzarioan euskarak presentzia handiagoa eduki dezan. Egunero atzerazekin diren urratsak ematearekin batera, gizarteari finantza zerbitzu eraginkoragoa eskaintzea da gure asmoa».

Gasteizko Udala



«Berebiziko garrantzia du Gasteizko Udalarentzat euskararen normalkuntzan bideratzen dituen hainbat proiektutarako kanpo-finantzazioa eskuratzeak. Berriki Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren aldi berria planifikatu delarik, halaxe nabarmendu da, bertan jasotzen diren hainbat ekimen ezingo bailirateke aurrera atera laguntza hori gabe. Kanpo-finantzazio hori bilatzeko orduan, Gasteizko errealitatetik abiatuta, EAEn ikuspegitik ere estrategikoak diren proiektuak aurkeztu izan dira Eusko Jaurlaritzaren deialdietara; batez ere, hiru arloren ingurukoak: komunikazioa eta sentsibilizazioa, euskararen erabilera aisialdian, eta merkataritza. Aurreikusitako ekintzen finantzazioari eusteko ezinbestekotzat jotzen da aurrekontu osoaren % 15 inguru izan ohi den ekarpen hori» ●



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoak (EEP) 2007an sinatu zuten 2007-2010 urteetarako elkarlanean marko nagusia, euskara eta hizkuntza-politika gaietan mugaz gaindiko lankidetzak sustatzeko asmoz. Hitzarmenaren 2010eko eranskinean bi atal nagusi aurreikusitakoak dira: elkarlanean erakunde biek garatuko dituzten ekimenak eta **Iparraldeko eragileei zuzendutako laguntzak**.

Aurkeztu berri den ebazpenaren arabera, 2010ean 1.600.000 euro bideratu dira, Iparraldeko eragileen lana sustatzeko, 2009an baino 210.000 euro gehiago. Eusko Jaurlaritzak 470.000 euro jarri ditu, eta EEPk, berriz, 1.130.000 euro. Dirua bi multzotan banatu da: batetik, 1.200.000 euro zazpi eragile nagusiren artean banatu dira, hitzarmen bidez (Euskal Haziak, Ikas Bi, Seaska, AEK, Euskal Irratiak, Bertsularien Lagunak eta Uda Leku), eta, bestetik, gainontzeko 400.000 euroekin, hainbat eragile pribatuk deialdira aurkeztutako 47 proiektu lagundu dira ●



Euskararen Aholku Batzordearen (EAB) osoko bilkura Lehendakaritzan egin zen, ekainaren 11n. EAB hizkuntza-normalizazioan diharduten erakunde publiko nahiz pribatuen ahaleginak eta ekintzak aztertzeke, bideratzeko eta koordinatzeko harreman-organoa da. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren egitasmo nagusiak zein EABren lanerako proposamen nagusiak aztertu ziren bileran.

Patxi Lopez lehendakariak adierazi zuenez, hurrengo hilabeteetan Euskararen Aholku Batzordeak bi zeregin nagusi izango ditu: **Euskara Biziberri-tzeko Plan Nagusia berrikusi** eta **Euskara 21 izenekoaren lan ildoak garatu**. «Bi lan hauek zuzen betetzen baditugu, goi-mailako agertoki batera heltzea lortuko dugu. Gizarte elebidunago, modernoago, irekiago bat lortuko dugu» adierazi zuen lehendakariak. Uda ostean abian jarriko dira EABko hiru batzorde-atal: *XXI mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak* batzorde-atala, *Toponimia* alorreko batzordea eta *Terminologia* batzordea ●



Kultura Sailak eta Microsoft Ibérica-k **Windows 7** sistema eragilearen eta **Windows Live**-ren euskarazko bertsioak aurkeztu berri dituzte. Ekitaldian, Blanca Urgell Kultura sailburuak eta Montserrat Pardo Microsoft Ibérica-ko Erakunde Harremanetarako kudeatzaileak hartu zuten parte.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKTak) euskararen presentzia bermatzeko emandako urratsak gero eta ugariagoak dira. Montserrat Pardok adierazi zuenez «teknologia berriak eta Internet aukera ezin hobekak dira kultur tradizioari loturik hizkuntza aniztasuna sendotu nahi duten gizarteentzat». «Esan genezake gaur-gaurkoz euskara eta IKTak sendo indartu direla. Teknologia linguistiko onenak euskaraz erabili nahi ditugu eta lanean jarraituko dugu, aurrerantzean ere hala izan dadin» gaineratu zuen Blanca Urgell Kultura sailburuak.

Windows 7ren euskarazko interfaze-paketea www.microsoft.es/eu eta www.euskara.euskadi.net helbideetan eskura daiteke. Windows Live-ren kasuan (Hotmail, Messenger...), produktua erabiltzeko orduan euskara hizkuntza aukeratu besterik ez da egin behar ●

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak Euskara Sustatzeko Zuzendaritzaren kontaktu-fitxategian sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saila / Zerbitzu Zuzendaritza / Donostia kalea 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz.

Euskararen Berripapera doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

- Paperezkoa jasotzeko: Eusko Jaurlaritza / Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 69 44 • berripapera@ej-gv.es

- Bertsio digitala jasotzeko egin harpidetza www.euskara.euskadi.net/berripapera helbidean.

